



Garuneko Paralisaren Menugutia
Ezeiza herri eskolan dagoen Tximeleta Gelan
2014ko maiatzaren 11n

LIBURDIA

Inklusiorako bidea eraikitzen



Aspacek Eskoriatzako Luis Ezeiza herri eskolan duen gela egonkorrean, garuneko paralisia duten bailarako sei umek beste ikasleekin batera normal konpartitzen dituzte eskolako orduak. Tximeleta Gela inklusiorako eredu bilakatzen ari da.

TESTUA: JOSU BILBAO ARGAZKIAK: GOIEMA ETA TXIMELETA GELA

Garuneko paralisia duten 9 eta 11 urte bitarteko sei ume daude gaur egun Luis Ezeiza herri eskolan dagoen Tximeleta Gelan. 2014ra arte, Aspacek Bergaran duen egoltzara joan behar izaten zuten umeek, baina pasa den ikasturtean Eskoriatzako eskolako beste gela bat bilakatu da.

Tximeleta Gelan Eskoriatzako bi ume, Arrasateko beste bi eta ofitiar eta bergarar bana daude. "Ume hauek garuneko paralisia dute, paralisi nahiko sakona, eta dauzkaten beharrak ez dira normalean eskola arruntetan landu daitezkeenak. Normalean, Aspacera joaten dira, Gipuzkoan banatuta dituen zentroetara. Lehen, goizetan, Aspaceko zentroetara hainbat helburu eta eduki lantzerara joaten ziren, Bergarara, eta arratsaldeetan nor bere eskolara joaten zen pixka bat sozializatze eta beste umeekin egoteko. Umeetako bat hemen zegoen, Luis Ezeizan, eta ume horren amaren borroka dela-eta etorri da hau guxtia. Eskolako zuzendaritzarekin bilera asko izan ondoren, borroka horretatik eskolaren eta Aspaceren arteko harremana hasi zen", azaldu du Lorea Ugartek, Tximeleta Gelako irakasleak.

Azkenean, 2014ko maiatzean, Luis Ezeizan gela bat sortzea erabaki zen, eta 2014ko irailean ikasturte berezi bati ekin zioten. Gaur egun, goiz eta

arratsalde toki ezberdinetan izan beharrean, sei umeek Eskoriatzako eskolan jasotzen dituzte behar dituzten atentzioak. Horretarako, gela egonkorrean, irakasleaz gain, monitore bat eta fisioterapeuta eta logopeda bana ere egoten dira. "Normalean, gelan hiru egoten gara lanean. Irakaslea, monitore bat, eta txandaka fisioterapeuta eta logopeda. Nork bere rola du. Fisioa eta logopeda euren arloetan zentratzen dira gehiago, baina tratamendu indibidualak egiten diren arren, fisioterapia edo komunikazioa funtzionala izatea saiatzen gara. Hau da, eguneroko bizitzan nola egin. Fisioak eta logopedak pautu batzuk ematen dituzte, eta gero, patioan gaudenean gainontzeko umeekin jolasten, badakigu zer landu dezakegun ematen dituzten pautekin. Umeentzat ere logikoa da modu funtzionalean lantzea. Azkenean, kristoren koordinazioa behar da hemen. Irakasle guztiekin koordinazioa, zuzendaritzarekin... Monitorea nirekin batera sartzen da gainontzeko gela eta dena eramaten laguntzen diti", dio Ugartek.

BEZGORRAK GADMUTZEN Aurreneko ikasturtea erronka handia izan zen Tximeleta Gelarendako eta Luis Ezeizako gainontzeko ikasle eta irakasleendako. "Iragan ikasturtean hasi ginen pixka bat eskola ezagutzen, jolas-ordu eta jangelako puntu



LUIS EZEIZA

komunetan harremanak egiten eta ezagutzen, beldur horietan aurre eginez. Gure partetik, umeen partetik, irakasleen partetik... Azkenean, lehenengo kontaktua egin behar izan genuen", azpimarratu du Ugartek.

"Pasa den ikasturtea erronka izan zen guztiontzat. Aurten askoz errazago joaten ari dira gauzak. Izan ere, denok joan gara ikasten bide honetan. Hasieran beldurra zegoen. Ume hauekin inoiz egon ez den jendea eurekin harremana izaten hasi zen, azken finean. Ume hauek ez dute hitz egiten, ezin dute ibili, ez dute dena ondo ulertzen... Hasieran beldurra zegoen, beraz. Nola gerturatu edo nola hitz egitearen beldurra, adibidez. Orduan lehen hiruhilekoan geletan eta jolas-orduan apur bat harremana lantzen joan ginen. Gu gerturatu, eurak gerturatu... Eta hiruhileko hori pasatsa, zeuden zalantzak argitzen saiatu ginen. Formazio bat egin genuen irakasleekin, eta gero gela guztietan ere", azaldu du Lorea Ugarte irakasleak.

Irakasleen eta ikasleen zalantzak argitzeko eta harremanak errazteko, irakaslea bera pasa zen gelaz gela: "Irakasleen aldetik, gerturatzeko beldurra zegoen, eta zerbait gaizki egitearen beldur hori. Irakasleek, ordea, zalantzak zituzten. Zergatik ezin dute hitz egin, zergatik ez dira ibiltzen... Orduan ni pasa nintzen gelaz gela euren galdera eta zalantzei erantzun bat emateko. Modu simple eta errealistan egiten saiatu nintzen, eta hori egin ostean, kristoren aldekata ikusi genuen. Umeek ulertzen zuten, errazago zen gerturatzera. Orain irakasleek badakite ume hauek zer gertatzen zaien; beraz, badakite nola jokatu eurekin".

MUGIKORTASUN ARAZOAK Tximeleta Gelako sei umeek gorpil aukiak behar dituzte mugitzeko, eta irisgarritasun aldetik ere erronka bat izan da Luis Ezeiza herri eskolarendako, eta Eskoriatzarendako.

12 PUNTLA



ko. "Aurreko ikasturtean, gaur egun dugun gela hartuta zegoen, eta lehenengo pisuan egon ginen. Igogailua badago, baina igogailuan aukia bat bakarrik sartzen da. Sei buelta egin behar izaten genituen gora eta behera, eta denbora nahiko galtzen genuen. Gainera, edozein arriskuren aurrean ez zein hain egokia lehenengo pisuan egotea", dio Tximeleta Gelako irakasleak.

"Aurreko urtean, Agenda 21en mugikortasuna gai nagusia izan zela aprobetxatuz, herria eta eskola zein egoeran zeuden landu genuen. Orduan umeek eurek ere ikusi zuten Tximeleta Gelak beheko solairuan egon behar zuela, badaezpada. Beraz, behean askoz hobeto gaude. Goian egoteak zer zuen onurak? Gertuago geundela geletatik eta beste umeekin harremanak egitea errazagoa zela. Hala ere, alde onak eta txarrak ikusi behar dira, eta asko irabazi dugu. Gelan egokitzapenak egin dira, eta orain primeran gaude. 2015eko urrian jaitsi ginen gela honetara, eta poliki-poliki inguru hau egokitzen doa. Baina egokitzea baino garrantzitsuagoa izan da irakasleak aurak konturatu direla ingurua ez zegoela egokitu", dio Lorea Ugartek.

DESTE UMEEKIN HARTU-EMANA Eskolako gaitortzeko irakasleekin harremana lantzeko orduan, Luis Ezeizaren erabiltzen duten metodologia ezinbestekoa

"BIDEA EGIN DAITEKEELA ERAKUTSI DIGU ESKORIATZAKO ESPERIENTZIAK"

"LUIS EZEIZA ESKOLAREN ETA IRAKASLEEN INPLIKAZIOA EZINBESTEKOA IZAN DIRA"

LOREA UGARTE TXIMELETA GELAKO IRAKASLEA



Erakundearen Umeak Tximeleta Gelako sei umeek Eskoriatzaren eskolara joan da. Beldurrik gabe, umeek irakasleekin

izan da, Lorea Ugarte irakaslearen ustez: "Eskola honetako duen alde oso positiboa erabiltzen duen metodologiak izan da. Guretzat egokia da benetan proiektuetan oinarritutako metodologia. Irakasgai solteak izan beharrean, eta irakasgai bakoitzeko gauza ezberdinak landu beharrean, proiektu ezberdinak gaude maila bakoitzeko, eta proiektu baten zehar arlo ezberdinak lantzen dituzte. Proiektuak izateak guri geletan momentu ezberdinetan sartzea ahalbidetzen digu. Hau da, ekintza bera eginda helburu ezberdinak lantzen ditugu. Guretzatko helburu batzuk eta gainontzeko ikasleentzat beste helburu batzuk. Ni gela batera igotzen baina ume batekin eta denak murrizki bat egiten badau, irakasleak ere umearekin egitea ez da gure asmoa. Helburua sozializatzea da; beraz, gainontzeko umeek berari laguntzen diote egin behar duena egiten".

Fixkanaka ahalik eta gehien sartzen ari dira eskolaren egunerokotasunean: "Tximeleta Gelan lantzen diren gauzak oso garrantzitsuak dire eurenzatzat, baina eskolan lantzen direnak ere bai. Horregatik, astero egoten dira denak gainontzeko geletan. Nahiz eta adin tartekak 9-11 urtekoak izan, ez ditugu denak bosgarren eta seigarren mailatan sartzen. Azkenean, adinak ez du hainbesteko garrantzirik gure kasuan. Jarduerak egiteko orduan sei kursoetan banatzen ditugu sei umeak. Orduan ume bakoitzak bere kurso erreferentzia

du, eta bertako jardueretan sartzen da. Irakasle eta ume guztiekin harremana egiteko ere modu bat da, azkenean".

ERREFERENTZIAZ DAITEKE! Aspatek, gaur egun, beste bi gela egonkor ditu Gipuzkoan: bat Donostian, Santa Teresan, eta beste Andoainean. Andoaineko aurtien sortu da, eta Santa Teresan ere orain dela pare bat urte hasi ziren umeen arteko harremanak osatu nahian. Tximeleta Gelak inklusiorako bidez erakutsi du. "Nik aste dut erreferentzia izan gaitzekoela. Horren ondorioz, aurtien Andoaineko zaharlu da beste gela bat, eta poliki-poliki beste eskola batzuetan ere ematen joango dela aste dut. Baitaraka-edo eman beharke litzateke, beharra dagoen tokietan. Eskoriatzako esperientzia honetako erakutsi digu bidez egin gaitzekoela. Guk, hasi ginenetik, bide berarekin jarraitzen dugu", azpimarratu du Lorea Ugartek.

"Milaka erronka edukiko ditugu. Bidez egiten hasi gara, baina bidea oraindik luze da. Guk aurrera egin nahi dugu. Guro iriziz, bide onen goaz, eta hau da inklusiorako bidez. Gure helburua guztiontzako eskola bat da. Aniztasuna kulturali, funtzionali, sexualki... Aniztasuna bere maila osoan", dio irakasleak.

Oraindik ez dago bigarren hezkuntzan gela egonkorrik, baina estorkizunerako beste erronka bat izango dela aipatu du Ugartek: "Agiar, Biga-

PUNTLA 13



rren Hezkuntzako zikloan gelaren bat sortu ahal izango da. Aspacek oraindik ez du. ZIG gelak daude, baina hor beste gaitasun batzuk dituzten ikasleak egoten dira, profil ezberdinekoak. Hain zuzen ere, jendearekin harremanetan jarraitzeko zentzoren baten gela bat sortzea izango litzateke umeendako onena. Beste aukera bat Aspaceko zentro batera joatea izango litzateke, lehen egiten zuten moduan. Beste erronka bat izango da, beraz”.

ALDAKETA AZKARRA “Nik guztiei nabaritu diet aldaketa hemen gaudenetik. Umeak eskolan badaude eta onarpen bat baldin badago bertan, eta, horrenbestez, herrian, familia hobeto sentitzen da kalean. Herrian normalagoa da, eta, onarpena dagoenez, umeak euren seme-alabengana gerturatzen dira. Horrek beraz, gurasoak hobeto egotea eragiten du. Gurasoak hobeto badaude, umeak ere hobeto daude. Kalean jendeak batera ikusten gaitu, eta ez da ni noala ume batekin. Ni inguruan egoten naiz laguntzeko, baina ume bakoitzarekin beste ume bat joaten da. Normalizatzek, azkenean, lagundu egiten du, eta horrek gizarte osoari ekartzen dio onura. Gure umei eta euren familiei, bereziki, baina gainontzekoei onura ere ekartzen diela uste dut.”, azpimarratu du irakasleak.

Tximeleta Gelako atea Luis Ezeizako guztien-dako zabalik daude. “Gure jarduerak ditugu, beste ikasleek ere badituzten moduan, baina jolas-ordu guztietan eskolako edozein sartu daiteke jolastera, galdetzerara... Ez da beti gu geletara igotzea, baizik eta beste ikasleak ere guregana etortzea”, dio irakasleak.

“Proiektu honek aurrera egiteko arrazoi garrantzitsuenetako bat Luis Ezeiza eskolaren inplikazioa izan da. Irakasleen inplikazioa, eta harremanak garatzeko orduan eskola honetan erabiltzen den metodologia ere funtsezkoak izan dira”, azaldu du Lorea Ugartek. ■



IGONE
ARMENDARIZ
GURASOA

“Gure seme-alabak ume artean bizitzea nahi genuen”

Igone Armendariz Araizen ama da. Aratzek 11 urte ditu, eta Tximeleta Gela sortu zenetik dago Eskoriatzako herri eskolan.

Zer izan da, zuendako, Tximeleta Gela moduko gela egonkor bat izatea?

Aratzek garuneko paralisia du, eta ezin dezake zutik mantendu gorputza. Menpekotasun handia du, beraz. Lehen, Bergarara joaten ginen. Bergarako Aspaceren egoitzan egun erdi igaro eta arratsaldeetan eskolara etortzen zen. Gurasoek ez genuen gura egun guztia han egotea seme-alabak. Ume artean bizitzea nahi genuen, eta, behin eta berriro eskatu ondoren, horrela izan beharko duela konturatu ziren. Guretako asko hobetu da egoera, baina, nire ustez, denondako hobetu da. Orain, adibidez, Aratz ez da Eskoriatzatik mugitu behar. Beste batzuek beste herri batzuetatik etorri behar dute, baina haiendako ere egoerak hobera egin duela uste dut. Azkenean, sozialki barne daude orain. Inklusioaz eta integrazioaz hainbeste berba egiten da... eta fitxa mugitzeko ordua zen.

Umeengan aldaketarik nabaritu duzue?

Aratz oso pozik dago. Normalean, pozik bizi den umea da, baina denon artean egoteak askoz gehiago poztzen duela uste dut. Gainera, inguruko umeendako ere garrantzitsua izan dela uste dut. Azkenean, beste balio batzuetan ere hazten dira, eta positiboa izan da. Bat gehiago balira bezala tratatzen dituzte aukietan dauden umeak.

Tximeleta Gela beste eskola batzuek ere izan daiteke?

Beste toki batzuetan ere badirudi martxan jarritzen hasi direla. Tximeleta Gela orain dela gutxi hasi da, eta jarraitzea espero dugu. Azkenean, jendea konturatu behar da gure umeak, umeak ere badirela. Luis Ezeiza eskolak ere bere aldetik asko ipini du, eta eskertu beharra dago.